

## **2009KO LAN POLTSAK**

# **OSASUN PUBLIKOKO TEKNIKARIAK**

## **A EREDUA**

**2009/06/16**

## 1 ZER DIRA DIOXINAK?

- 1a) Protozooek sortzen dituzten toxina batzuk.
- 1b) Mikroorganismo esporatuek sortzen dituzten substantzia batzuk.
- 1c) Konposatu iraunkor batzuk dira, eta batez ere prozesu termikoetan sortzen dira.
- 1d) Elikagaietan markatzaile modura erabiltzen diren substantzia batzuk.

## 2 ZER DA BENZO (A) PIRENOA?

- 2a) Dioxina bat.
- 2b) Hidrokarbuo usaintsu polizikliko bat.
- 2c) Hegazti-hazkuntzan erabiltzen den kokzidiostatiko bat.
- 2d) Toxiko natural bat.

## 3 ELIKAGAIETAN, NOLA NEURTZEN DIRA DIOXINAK ETA PCB-AK?

- 3a) Baliokide toxikotan (BT).
- 3b) Dioxinak eta PCB-ak bereizita neurtzen dira, bakoitza bere aldetik.
- 3c) Elikagai  $\mu\text{g/g}$ -tan.
- 3d) Plakako inhibizio-haloaren arabera.

## 4 ELIKAGAIETAN, ZEIN DIRA PLAGIZIDARIK TOXIKOENAK?

- 4a) Organokloratuak.
- 4b) Organofosforatuak.
- 4c) Karbamatoak.
- 4d) Ditiokarbamatoak.

## 5 GUTXI BADA ERE, ELIKAGAI GEHIENETAN DAGO:

- 5a) Merkurioa.
- 5b) Arseniko inorganikoa.
- 5c) Beruna.
- 5d) Nitratoak eta nitritoak.

## 6 KADMIOA:

- 6a) Elikagai batzuetan, ugari dago.
- 6b) Elikagaietan egiten diren tratamendu batzuen ondorioz sortzen da.
- 6c) Batez ere, ura edanez barneratzen dugu.
- 6d) Gizakiarengan minbizia sor dezake.

## 7 ELIKAGAI HAUETATIK, ZEINETAN DA ERRAZEN MERKURIO-KUTSADURA AURKITZEA?

- 7a) Legatzean.
- 7b) Hegalaburrean.
- 7c) Behi zaharraren haragitan.
- 7d) Barazkietan.

**8 PLAGIZIDA ORGANOFOSFORATUAK:**

- 8a) Azkar metabolizatzen dira.
- 8b) Ingurumenean ez dute luze irauten.
- 8c) Gehien erabiltzen diren plagizidak dira.
- 8d) Hiru erantzunak zuzenak dira.

**9 HITZ EGIN DEZAGUN ELIKAGAIETAKO TOXIKO NATURELEI BURUZ. ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?**

- 9a) Osasunean elikagaietako kutsadura mikrobiologikoak baino eragin handiagoa dute.
- 9b) Naturalak direnez, pertsonen osasunean ez dute eraginik.
- 9c) Elikagaiak sortzen dituzten gaixotasun gehienetan, mikrobiologikoak eta gero, toxiko naturalak dira eragile nagusiak.
- 9d) Elikagaietako aditiboek osasun-arazo gehiago sortzen dituzte.

**10 ZER DA HEXESTROLA?**

- 10a) Estilbeno bat.
- 10b) Tireostatiko bat.
- 10c)  $\beta$ -agonista bat.
- 10d) Antimikrobiano bat.

**11 BEHI-GIBELEAN GEHIENEZ ERE ZENBAT KLENBUTEROL DAGO BAIMENDUTA?**

- 11a) 10  $\mu$ g/g
- 11b) 10 mg/g
- 11c) 100  $\mu$ g/g
- 11d) Klenbuterola debekatuta dago, eta hortaz ezin da antzeman, ez asko ez gutxi.

**12 GIZAKIAK JATEKO BADIRA, ANIMALIETAN SUBSTANTZIA HAUETAKO ZEIN DAGO DEBEKATURIK?**

- 12a) Kokzidiostatoak.
- 12b) Sulfamidak.
- 12c) Kloranfenikola.
- 12d) Hiru substantzia horietako bat ere ez dago debekaturik, baina bai dago, guztietarako, gehienezko muga bat.

**13 ELIKAGAIETAN, KUTSAGARRIAK AZTERTZEKO, ZER ERABILTZEN DA?**

- 13a) Eguneko Ingesta Onargarria (gaztelaniazko IDA).
- 13b)
- 13c)
- 13d) Hirurak erabiltzen dira, zein kutsagarri aztertu behar dugun gorabeheran.

**14 GURE DIETAN ZENBAT KUTSAGARRI BARNERATZEN DUGUN JAKITEKO, DIETA OSOAREN AZTERKETAK EGIN BEHAR BADITUGU, ZEIN METODO ERABILIKO DUGU?**

- 14a) Elikagaiak banaka hartuta egingo dugu.
- 14b) Errazioak bikoiztuta egingo dugu.
- 14c) "Erosketa-saskiaren" metodoa.
- 14d) Dieta osoaren azterketak egiteko, hiru metodo horietako edozein da baliagarria.

- 15 ELIKAGAI-SEGURTASUNARI BURUZKO LIBURU ZURIAREN ARABERA, NOR DIRA ELIKAGAIEN SEGURTASUNAREN ARDURADUNAK?**
- 15a) Agintari eskudunak.
  - 15b) Elikagai-industrietako gerenteak.
  - 15c) Pentsuak egiten dituztenak, nekazariak, ekoizleak eta elikagai-erabiltzaileak.
  - 15d) Kontsumitzaileak.
- 16 ELIKAGAI-SEGURTASUNARI BURUZKO LIBURU ZURIAK HAINBAT PRINTZIOPIO DAKAR. ERANTZUN HAUETAKO ZEIN EZ DA PRINTZIOPIO HORIETAKO BAT?**
- 16a) Elikagai-segurtasunari buruzko politikak analisisetan eta ikuskapenetan oinarritu behar du.
  - 16b) Zuhurtasun-printzipioa.
  - 16c) Elikagai-segurtasunari buruzko politikaren gardentasuna.
  - 16d) "Arriskuaren analisiak" izan behar du elikagai-segurtasunari buruzko politikaren oinarria.
- 17 882/2004 ERREGELAMENDUA ELIKAGAIETAN EGIN BEHARREKO KONTROL OFIZIALEI BURUZKOA DA. ZERI BURUZ ARI DA?**
- 17a) Elikagaiei buruz.
  - 17b) Elikagaiei eta pentsuei buruz.
  - 17c) Elikagaiei, pentsuei eta animalien osasunari buruz.
  - 17d) Elikagaiei, pentsuei, animalien osasunari eta animalien ongizateari buruz.
- 18 882/2004 ERREGELAMENDUA ELIKAGAIETAN EGIN BEHARREKO KONTROL OFIZIALEI BURUZKO DA. HAN JARTZEN DUENEZ, NOLAKOAK IZAN BEHAR DUTE KONTROL HORIEK?**
- 18a) Ausaz eta abisatu gabe egin behar dira.
  - 18b) Erregularrak eta arriskuaren neurrikoak.
  - 18c) Europako Batzordeak bi urtekako kanpaina bakoitzerako agintzen dituenak.
  - 18d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.
- 19 ELIKAGAI-SEGURTASUNAZ ARI GARELARIK, NOLA DAGO OSATURIK ARRISKU-ANALISIA?**
- 19a) Arriskua ebaluatzea, arriskua kudeatzea eta arriskua jakinaraztea.
  - 19b) Arriskua identifikatzea, arriskutan zenbateraino gauden neurtzea eta kudeatzea.
  - 19c) Arriskua jakinaraztea, arriskutan zenbateraino gauden neurtzea eta trazagarritasuna.
  - 19d) Arriskua kudeatzea, trazagarritasuna eta lagin adierazgarriak.
- 20 ERANTZUN HAUETAKO ZEIN DA GEZURRA?**
- 20a) Arriskua identifikatzea ere elikagaien arrisku-ebaluaketaren parte bat da.
  - 20b) Arriskutan zenbateraino gauden neurtzea ere elikagaien arrisku-ebaluaketaren parte bat da.
  - 20c) Arriskua egiaztatzea ere elikagaien arrisku-ebaluaketaren parte bat da.
  - 20d) Arriskuaren ezaugarriak zehaztea ere elikagaien arrisku-ebaluaketaren parte bat da.

**21 LISTERIA MONOCYTOGENES DELA-ETA, ELIKAGAI HAUETAKO ZEIN DA ARRISKUGARRIAGOA?**

- 21a) Arrain freskoa.
- 21b) Maionesa.
- 21c) Urdaiazpiko egosia xerratan.
- 21d) Barazki-kontserba.

**22 ELIKAGAIK DIRELA-ETA EUSKAL HERRIAN GERTATZEN DIREN TOXIINFEKZIOETAN, ZEIN DA ETIOLOGIA NAGUSIA?**

- 22a) *Salmonella spp*
- 22b) *Campylobacter jejuni*
- 22c) Birusa.
- 22d) *Bacillus cereus*

**23 GERMEN HAUETAKO ZEINEK DU INKUBAZIO-ALDI LABURRENA ELIKAGAI-TOXIINFEKZIOA SORTZEN DUENEAN?**

- 23a) *Listeria monocytogenes*
- 23b) *Salmonella enteritidis*
- 23c) *Brucilla spp*
- 23d) *Staphylococcus aureus*

**24 HACCP/APPCC DELAKO SISTEMA BATEAN, BADAEZPADA HARTU BEHARREKO NEURRIAK:**

- 24a) Arrisku bakoitzerako hartzen dira.
- 24b) Kontrol kritikoko puntu bakoitzerako hartzen dira.
- 24c) Muga kritiko bakoitzerako hartzen dira.
- 24d) Ekintza zuzentzaile bakoitzerako hartzen dira.

**25 HACCP/APPCC DELAKO SISTEMA BATEAN, NOLA EGIN BEHAR DA ARRISKUEN ANALISIA?**

- 25a) Sistematikoa: Etapa bakoitzeko arrisku bakoitzerako.
- 25b) Arriskua eta larritasuna baloratuz.
- 25c) Arrisku guztiak analizatu behar dira: fisikoak, kimikoak eta biologikoak.
- 25d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

**26 HACCP/APPCC SISTEMA BATEAN, NORAKO EZARTZEN DIRA MUGA KRITIKOAK?**

- 26a) Badaezpada hartu beharreko neurri bakoitzerako.
- 26b) Arrisku bakoitzerako.
- 26c) Kontrol kritikoko puntu bakoitzerako.
- 26d) Zaingo bakoitzerako.

**27 KONTROL-PUNTU KRITIKO BAT KONTROLPEAN DAGOEN EBALUATZEKO, HAINBAT BEHAKETA EDO NEURRI ERABILTZEN DA. ZEIN IZEN DUTE?**

- 27a) Egiaztatze-sistema.
- 27b) Zaingo-sistema.
- 27c) Balioztatze-sistema.
- 27d) Erregistro-sistema.

**28 HACCP/APPCC SISTEMA BATEAN, PLAN HAUETAKO ZEIN EZ DA PLAN LAGUNGARRIA?**

- 28a) Zaingo-plana.
- 28b) Garbiketa-plana.
- 28c) Prestakuntza-plana.
- 28d) Kalibrazio-plana.

**29 LEGEAN JARTZEN DUENEZ, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN, ZEIN TALDETAKOAK DIRA PIZZAK ETA PLATER KONBINATUAK EGITEN DITUZTEN OSTATUAK?**

- 29a) 0.
- 29b) I.
- 29c) III.
- 29d) V.

**30 HONA HEMEN TALDE-JANTOKIEI BURUZKO HAINBAT ESALDI. BAKARRA DA ZUZENA, ZEIN?**

- 30a) Talde-jantokiek debekatuta dute etxe partikularretan prestatutako elikagaietatik hornitzea janariz.
- 30b) Eskuartean elikagairik erabili behar duen orok derrigorra du elikagai-erabiltzaileen txartela edukitzea.
- 30c) 0 eta I taldeetako jantokiek ez dute funtzionatzeko osasun-baimenik behar.
- 30d) Manipulatu beharra baldin badago, edo kontrolpeko tenperaturatan egon behar badu, elikagaiak 2°C baino tenperatura baxuagoan egon beharko du, beti.

**31 ELIKAGAIETARAKO ESTABLEZIMENDUEN DISEINUAN, BADA FUNTSEZKO GAUZA BAT. ZEIN?**

- 31a) Lokaleko planoak osasun-agintariari erakustea, hark onartu edo ez erabaki dezan, aurretiaz.
- 31b) Nahikoa argi naturala edukitzea.
- 31c) Proiektuak elkargo ofizialen baten zigilua edukitzea.
- 31d) Zirkuitu garbiak eta zikinak banatzea.

**32 EUROPAR BATASUNeko ERREGELAMENDUAK:**

- 32a) Batasunekok ez diren herrialdeetatik datozen elikagaietarako ezartzen dira.
- 32b) EBko herrialde guztiek derrigor bete behar dituzte.
- 32c) Erregelamendu horiek bere legedira bildu eta gero, dena delako estatuak derrigor bete beharko ditu.
- 32d) Jarraibide modura balio dute, Batasuneko estatu bakoitzeko legedirako.

- 33 ELIKAGAIEI BURUZKO LEGE EUROPARREN ARABERA, ELIKADURA-ENPRESA BATZUEK EZ DUTE HACCP/APPCC SISTEMARIK ZERTAN JARRI BEHAR. ZEIN DIRA?**
- 33a) Animalia-jakiekin lan egiten duten enpresa txikiak.  
33b) Elikagaiak biltegitatu eta salerosi besterik egiten ez duten enpresak.  
33c) Horretarako berariazko baimena eskatzen duten enpresak.  
33d) Elikadura enpresa bat ere ez dago salbuetsita.
- 34 ZERK SORTZEN DU HAUSNARKARIEN ENTZEFALOPATIA ESPONGIFORMEA?**
- 34a) Prioi-proteinak.  
34b) Adenobirusak.  
34c) Rickettsiek.  
34d) Borreliek.
- 35 ELIKAGAI HAUEN ARTETIK, PERTSONENGAN ZEINEK SORTUKO DU, ERRAZEN, BRUZELOSIA?**
- 35a) Arrain gordinak.  
35b) Esne gordinak.  
35c) Barazki gordinek.  
35d) Bruzelosia ez da elikagaietatik transmititzen.
- 36 HAUSNARKARIEN ENTZEFALOPATIA ESPONGIFORMEAREKIN ZERIKUSIA BALDIN BADUTE, ZERTARAKO ERABIL DAITEZKE BEREZIKI ARRISKUTSUAK DIREN MATERIALAK (GAZTELANIAZKO MER DIRELAKOAK)?**
- 36a) Industrian eraldatzeko.  
36b) Animaliei jaten emateko, baina ez gizakiontzako.  
36c) Lurrun bidez tratatutako elikagai modura erabil daitezke (80°C baino gehiagotara tratatu behar dira).  
36d) Erre egin behar dira.
- 37 JARDUERA HAUETAKO ZEIN EZ DA ELIKAGAIK OFIZIALKI KONTROLATZEKO JARDUERA?**
- 37a) Autokontrolerako auditoriak.  
37b) Elikagaien analisisa.  
37c) Pentsuen kontrola.  
37d) Hirurak dira kontrol-jarduera ofizialak.
- 38 NOIZ EGIN BEHAR DIRA ELIKAGAIK OFIZIALKI KONTROLATZEKO BISITAK?**
- 38a) Dena delako establezimendua lanean ari denean.  
38b) Edozein momentutan eta abisatu gabe, ikuskaritzetan izan ezik.  
38c) Beti, abisatu gabe.  
38d) Gutxienez, urtean behin.

**39 NORK EMATEN DU ELIKAGAIEN OSASUN ERREGISTRO OROKORRA?**

- 39a) Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak.
- 39b) Administrazio zentralak.
- 39c) Foru-aldundiek.
- 39d) Udalek, baina 10.000 biztanle baino gutxiagokoek ez. Horrelakoetan, dena delako foru-aldundiak emango du.

**40 KONTU EGIN GURE ESTABLEZIMENDUAK HARAGIKIAK EGITEKO BAIMENA DUELA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN, ETA ELIKAGAIEN OSASUN ERREGISTRO OROKORREAN IZENEMANDA DAGOELA. NON SALDU DITZAKEGU GURE PRODUKTUAK?**

- 40a) Euskal Autonomia Erkidegoan besterik ez.
- 40b) Estatu osoan.
- 40c) Europar Batasun osoan.
- 40d) Munduko Merkataritza Antolakundeko herrialdeetan, mugarik gabe.

**41 KONTU EGIN TALDE-JANTOKI BATEAN INTOXIKAZIO BAT GERTATU DELA PSP TOXINAK ERAGINDA. ZEIN ELIKAGAI JASOKO ZENUKE, GERO ANALIZATZEKO?**

- 41a) Molusku bibalboak.
- 41b) Perretxikoak.
- 41c) Krustazeoak.
- 41d) Barazki-kontserbak.

**42 OROKORREAN, ELIKAGAI-LAGIN OFIZIAL BATEK ZENBAT ALE IZAN BEHAR DITU?**

- 42a) Bat bakarrik.
- 42b) Bi ale, hasierako analisirako eta kontra-analisirako.
- 42c) Hiru ale, hasierako analisirako, kontra-analisirako eta analisi ebazlerako.
- 42d) Lau ale, hasierako analisirako, ebazlerako, kontra-analisirako eta gordetzeko edo epaiketarako.

**43 ELIKAGAIEN ETIKETAK: ERANTZUN HAUETAKO BAT BAKARRIK DA ZUZENA, ZEIN?**

- 43a) Etiketari, osasun-erregistroko zenbakiak agertu behar du.
- 43b) Elikagaien etiketan, fabrikatzailearen izenak agertu behar du.
- 43c) Elikagai guztiak zigilu obal bat erabiliz etiketatu behar dira.
- 43d) Etiketari, gutxienez noiz arte irauten duen edo iraungitze-data agertu behar da, beti.

**44 ELIKAGAIEN ETIKETETAN, ESTABLEZIMENDUA IDENTIFIKATZEKO, NAHIKOA DA JARTZEA IZENA, HELBIDEA EDO... NOREN IZENA?**

- 44a) Fabrikatzailearena.
- 44b) Elikagaia ontzian sartu duenarena.
- 44c) Saltzailearena.
- 44d) Aurreko erantzunetako edozein da zuzena.



**45 ERAKUNDE HAUETAKO BATEN HELBURU NAGUSIETAKO BAT ERAGILE KIMIKOEN MINBIZIA SOR OTE DEZAKETEN EBALUATZEA DA. ZEIN DA ERAKUNDE HORI?**

- 45a) Osasun eta Kontsumo Ministerioa.
- 45b) UNESCO.
- 45c) IARC.
- 45d) JEMRA (FAO/OME).

**46 GIZAKIAREN OSASUNERAKO ARRISKU BIOLOGIKOEI, FISIKOEI EDO KIMIKOEI AURREA HARTZEA ZER DELA ESANGO ZENUKE?**

- 46a) Osasuna sustatzea.
- 46b) Osasun-arloko laguntza-politika.
- 46c) Osasuna babestea.
- 46d) Hiru erantzunak zuzenak dira.

**47 OSASUNA SUSTATZEKO ETA GAIXOTASUNARI AURREA HARTZEKO JARDUERAK NON KOKATUKO ZENITUZKE?**

- 47a) Osasunaren sustapenean.
- 47b) Osasunaren babesean.
- 47c) Osasunaren sustapen eta babesean.
- 47d) Arriskuaren kudeaketan.

**48 ZER DA EUKADIKO OSASUN PLANA?**

- 48a) Euskadiko herritarren osasun-premiei erantzuteko aurrekontu ekonomikoa, bosturtekoa.
- 48b) Osasun-sistema planifikatzeko eta programatzeko tresna goren.
- 48c) Osasun Sailaren eta Osakidetzaaren kudeaketarako eta ekonomiarako plana.
- 48d) Euskadiko osasun-sistema osoa arautzen duten lege-arauen multzoa.

**49 ELIKAGAIAK OFIZIALKI KONTROLATZEKO JARDUERAK NOREN ESKUMENPEKOAK DIRA?**

- 49a) Europar Batasunarenak.
- 49b) Administrazio zentralarenak.
- 49c) Eusko Jaurlaritzarenak.
- 49d) Hiru horien artean banaturik dago eskumen hori.

**50 KLOROARI BURUZKO BAIEZTAPEN ZUZENA, GIZAKIAK ERABILTZEKO URAREN DESINFEKTATZAILE DEN ALDETIK**

- 50a) Azido hipoklorosoa da eskura dagoen formarik eraginkorrena.
- 50b) Desinfektatzaile eraginkorragoa da ingurune alkalinoan.
- 50c) Burdina eta manganesoa gaizki oxidatzen ditu.
- 50d) Nitrito zati bakoitzeko 0,5 kloro zati behar dira, nitritoa desegiteko.

- 51 GIZAKIAK ERABILTZEKO UREN FLUORAZIOARI DAGOKIONEZ, EAE-N**
- 51a) Uraren fluor-kontzentrazioak ez du 1,2mg/l baino handiagoa izan behar, inola ere.  
51b) 75.000 herritar baino gehiago hornitzen dituzten plantek bakarrik dute ura fluoratzeko betebeharra.  
51c) Fluoruro sodikoa bakarrik erabil daiteke.  
51d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.
- 52 GIZAKIAK ERABILTZEKO UREN PARAMETRO ADIERAZLE GISA, ZEIN DA BAKTERIA KOLIFORMEETARAKO UNITATE KOLONIA-SORTZAILEEN KOPURU BAIMENDUA 100 ML-TAN, 140/2003 ERREGE DEKRETUAREN ARABERA?**
- 52a) 0  
52b) 1  
52c) 5  
52d) 10
- 53 PARAMETRO HAUETATIK ZEIN EZ DA KONTUAN HARTZEN KONTSUMITZAILEAREN ITURRIKO URAREN KALITATEA KONTROLATZEKO ANALISIAN?**
- 53a) Bakterio koliformeak.  
53b) E. Coli.  
53c) Amonioa.  
53d) Nitritoa
- 54 ZEHAZTAPEN HAUETATIK, ZEIN EZ DA KONTUAN HARTZEN, GIZAKIAK ERABILTZEKO UREN EZAUGARRI ORGANOLEPTIKOEN EZAUGARRIAK AZTERTZEKO ANALISIAN?**
- 54a) Uhertasuna.  
54b) pH-a.  
54c) Usaina.  
54d) Zaporea.
- 55 140/2003 ERREGE DEKRETUAREN ARABERA, 2009-1-1ETIK AURRERA, GIZAKIAK ERABILTZEKO URETAN TRIHALOMETANOEN BATURAREN BALIO MAXIMOA HONAKO HAU DA:**
- 55a) 50 µg/l  
55b) 100 µg/l  
55c) 200 µg/l  
55d) 250 µg/l
- 56 178/2002 DEKRETUAK, EAE-N KONTSUMO PUBLIKOKOAK DIREN UREN KALITATEAREN KONTROL-, ZAINZA- ETA INFORMAZIO-SISTEMA ARAUTZEKOAK,**
- 56a) EAeko Kontsumo Publikoko Uren Informazio Sistema (EKUIS) sortu zuen.  
56b) Kontsumorako Uren Informazio Nazionaleko Sistemaren (SINAC) oinarriak ezarri zituen.  
56c) Uren fluorazioak EAEn bete beharreko baldintzak ezarri zituen.  
56d) a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

**57 178/2002 DEKRETUAK, EAE-N KONTSUMO PUBLIKOKOAK DIREN UREN KALITATEAREN KONTROL-, ZAINZA- ETA INFORMAZIO-SISTEMA ARAUTZEKOAK, HONAKO HAU XEDATZEN DU:**

- 57a) Osasun Publikoko Eskualde Zentroak Kontrol eta Zaintza Unitateen barruan egongo dira.
- 57b) Kontsumo publikoko uren hornidura-sistema guztiek izan behar dituzte Kontrol eta Zaintza Unitateak, nola propioak hala hitzartuak.
- 57c) Kontrol eta Zaintza Unitateek uren kalitateari buruzko informazioa bidaliko diote SINAC-i (Kontsumorako Uren Informazio Sistema).
- 57d) Kontrol eta Zaintza Unitatea SINACen barruan baldin badago, ez da beharrezkoa EKUIS-i (EAEko Kontsumo Publikoko Uren Informazio Sistema) informazioa ematea.

**58 HONDARTZETAN ETA BARRUALDEKO BAINU-EREMUETAN EZAUGARRI MIKROBIOLOGIKOAK AZTERTZEKO EGINDAKO LAGINKETA:**

- 58a) Metro bateko sakonera duten eremuetan egiten da, azaletik 30 cm-ra.
- 58b) Metro bateko sakonera duten eremuetan egiten da, azalean.
- 58c) Jende gutxi bainatzen den eremuetan egiten da, jendeak lagina hartzerakoan eta laginaren ezaugarrietan eragin ez dezan.
- 58d) "b" eta "c" baldintzak, biak betetzen diren eremuetan egiten da.

**59 1341/2007 ERREGE DEKRETUAK, BAINATZEKO UREN KALITATEA KUDEATZEARI BURUZKOAK, DERRIGORREZKO PARAMETRO HAUEK EZARTZEN DITU URTEKO EBALUAZIOA EGITEKO:**

- 59a) *Escherichia Coli* eta *Salmonella*.
- 59b) *Escherichia Coli* eta hesteetako enterokokoak.
- 59c) *Salmonella* eta koliforme totalak.
- 59d) Koliforme totalak eta enterobirusak.

**60 1341/2007 ERREGE DEKRETUAK, BAINATZEKO UREN KALITATEA KUDEATZEARI BURUZKOAK, XEDATZEN DU LAGINKETAK HONAKO MAITZASUNAREKIN EGINGO DIRELA, KASU BEREZIAN IZAN EZIK:**

- 60a) Gutxienez, 12 laginketa urtean.
- 60b) Gutxienez, astean laginketa bat bainu-denboraldian.
- 60c) Hasierako laginketa bainu-denboraldia hasi baino lehen, eta gutxienez 8 laginketa bainu-denboraldiak irauten duen artean.
- 60d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

**61 32/2003 DEKRETUAK, ERABILERA PUBLIKOKO IGERILEKUEN OSASUN ARAUDIA EZARTZEN DUENAK, ZER ARAUTZEN DU?**

- 61a) Jolaserako igerileku guztiak eta erabilera terapeutikoa dutenak, salbuespenik gabe.
- 61b) Igerileku guztiak, familia bakarreko etxeetakoak izan ezik.
- 61c) Erabilera kolektiboko igerilekuak; familia bakarreko etxebizitzetan daudenak eta 20 etxebizitza arteko auzo-erkidegoenak direnak izan ezik eta erabilera bakoitzaren ondoren husten direnak izan ezik.
- 61d) Instalazio publikoetan dauden jolaserako igerilekuak bakarrik.

**62 IGERILEKUKO URA IRAGAZTEA ETA DESINFEKTATZEA:**

- 62a) Ez da derrigorrezkoa, igerilekurako ura uhertasun handikoa ez bada behintzat.
- 62b) Ahal dela, iragazki leunekin egingo da.
- 62c) Etengabe egin beharko litzateke; bai, behintzat, jendearentzat zabalik dagoen artean.
- 62d) Ez dago egin beharrik, hondar-kloro librea 1,2 mg/l baino handiagoa baldin bada.

**63 IGERILEKUKO URA TRATATZEKO HIPOKLORITOA ERANSTEN DENEAN, ZEIN PARAMETROK DU LOTURA ZUZENENA URAREN DESINFEKTATZEKO AHALMENAREKIN?**

- 63a) Sareko urak duen organismo patogenoen kontzentrazioak eta, batez ere, *Escherichia Coli*-ren kontzentrazioak.
- 63b) Ontziko uraren eroankortasunak; horregatik, ohikoa izaten da gatz pixka bat gehitzea.
- 63c) Igerilekua berritzeko uraren emariak; horregatik, gutxienekoa ontziaren bolumenaren laurdena da.
- 63d) Ontziko uraren pH-ak; horregatik, ohikoa izaten da azido klorhidriko pixka bat gehitzea.

**64 SAREKO URA IGERILEKUKO ONTZI BATERA SARTZEARI DAGOKIONEZ,**

- 64a) Ez da beharrezkoa igerilekua funtzionamenduan den artean; beharrezkoa den bakarra da uraren guztizko bolumenaren % 5aren birzirkulazioa ziurtatzea.
- 64b) Eguneroko funtzionamenduan, gutxienez igerilekuaren guztizko bolumenaren %50 berritzen duela bermatu beharko du.
- 64c) Eguneroko funtzionamenduan, gutxienez igerilekuaren guztizko bolumenaren %5 berritzen duela bermatu beharko du.
- 64d) Ur birziklatua berotzearekin lotutako energia-gastua aurrezten du.

**65 IGERILEKUKO URA TRATATZEKO EDOZEIN SISTEMAK**

- 65a) Hondakinak desinfektatzeko ahalmena bermatu behar du, betiere erabiltzaileen begi, azal eta mukosak narritatu gabe.
- 65b) Hondakinak desinfektatzeko agenterik ez daukala ziurtatu behar du, erabiltzaileak intoxikatu ez daitezen.
- 65c) Uraren eroankortasuna 100  $\mu$ S/cm dela ziurtatu behar du.
- 65d) Uraren gaitasun oxidatzailea (permanganatoarekiko) litroko 4mg O<sub>2</sub> baino gehiago areagotu behar du.

**66 ETXE-HONDAKINEN GAIKAKO BILKETAREN HELBURUA HONAKO HAU DA (BESTE HAINBATEN ARTEAN)**

- 66a) Hondakin birziklagarrien ekoizpena murriztea.
- 66b) Hainbat material birziklatzea eta produktu arriskutsuak bereiztea, behar bezala kudeatzeko.
- 66c) Hondakin balarizazio energetikoa bultzatzea.
- 66d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

**67 HONDAKINAK ERRAUSTEA**

- 67a) EAEko egungo araudian ez dago nahitaez erraustu beharreko hondakin mota bakar bat ere.
- 67b) Komeni da hondakin arriskutsuak erraustea.
- 67c) Hondakin sanitarioen kasuan, I. Taldekoak bakarrik erraustu daitezke (hiri- edo udal-hondakinak)
- 67d) Aurreko erantzun guztiak dira okerrekoak

**68 AGENTE BIZIAK EDO MOTELDUAK DITUZTEN HONDAKIN-TXERTOAK**

- 68a) Hondakin sanitarioen III. Taldean sartzen dira, 76/2002 Dekretuak ezarritakoaren arabera.
- 68b) Errausketa da hondakin horiek tratatzeko bide bakarra.
- 68c) Errausketa ez den beste bide bat erabilita kudea daitezke.
- 68d) III. Taldeko hondakinekin batera kudeatuko dira; alegia, hondakin kimikoekin eta berariazko araudien bitartez erregulatutako gainerako hondakinekin batera.

**69 HONDAKIN SANITARIOAK ZENTROTIK KANPO KUDEATZEA**

- 69a) Osasun eta Kontsumo Sailak baimenduko du, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako txostena jaso ondoren.
- 69b) Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren baimena behar da, eta aurrez osasun-txostena egin behar da.
- 69c) Nahitaezkoa da 1.000 ohe baino gehiago dituzten osasun-zentro handientzat.
- 69d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

**70 HONDAKIN SANITARIOAK SORTZEN DITUZTENEK**

- 70a) Hondakinen Kudeaketa Plana aurkeztu behar dute Osasun eta Kontsumo Sailean, hark onar dezan.
- 70b) Ez dute Kudeaketa Plana aurkeztu beharrik, hilean 1.000 kg baino gutxiago sortzen badituzte.
- 70c) Urteko memoria aurkeztu behar dute Osasun eta Kontsumo Sailean.
- 70d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**71 HONDAKIN SANITARIOEN TITULARTASUNA**

- 71a) Azken kudeatzailea inoiz ez da hondakinen titularra.
- 71b) Jatorrizko titulartasuna hondakinen sortzaileari egozten zaio.
- 71c) Hondakinak dauzkatenak ez dira hondakinen titular joko, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin sanitarioak kudeatzeko baldintzak arautzen dituen 76/2002 Dekretuaren arabera eskuratu dituztela egiaztatzen badute.
- 71d) Hondakin sanitarioak sortzen dituenak beti izango hondakin horien titularra.

**72 ZEIN MOTATAKO HONDAKINAK DIRA PIXOIHAK, BENDAJEAK ETA GASAK?**

- 72a) Hondakin infekziosoak.
- 72b) Hondakin sanitario espezifikoak.
- 72c) Hiri- edo udal-hondakinak.
- 72d) Araudi espezifikoen bidez araututako hondakinak.

**73 OZONO TROPOSFERIKOARI DAGOKIONEZ, ONDORENGO BAIETZAPEN HAUETATIK ZEIN DA ZUZENA?**

- 73a) "Ozono geruza" osatzen du, erradiazio ultramoretik babesten gaituena.
- 73b) Kutsatzaile primarioa da, eta, batez ere, errektuntza-prozesuetan isurtzen da.
- 73c) Kutsatzaile sekundarioa da, eta, nitrogeno oxidoen eta konposatu organiko lurrunkorren arteko erreakzioetan sortzen da.
- 73d) a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

**74 PARTIKULEK ERAGINDAKO KUTSADURARI DAGOKIONEZ, ONDORENGO BAIETZAPEN HAUETATIK ZEIN DA ZUZENA?**

- 74a) 2,5  $\mu\text{m}$  ( $\text{PM}_{2,5}$ ) ebakitze-partikulen kontzentrazioa osasun-ondorioen adierazle hobea da, 10  $\mu\text{m}$  ( $\text{PM}_{10}$ ) ebakitze-partikulen kontzentrazioa baino.
- 74b) 10  $\mu\text{m}$  ( $\text{PM}_{10}$ ) ebakitze-partikulen kontzentrazioa 20  $\mu\text{g}/\text{Nm}^3$  izatea da segurtasun-maila; hortik behera, ez da osasun-ondoriorik agertzen.
- 74c) Oraingoz ez dago partikulek eragindako kutsadura eta osasun-ondorioak erlazionatzen dituen ikerketa epidemiologikorik.
- 74d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

**75 NITROGENO OXIDOEK ERAGINDAKO KUTSADURARI DAGOKIONEZ**

- 75a) Kutsatzaile sekundarioak dira, eta, batez ere, automobilen kutsadurak sortzen ditu.
- 75b) Ez daukate eragin nabarmenik ozonoak eragindako kutsaduran.
- 75c) Nitrogeno oxidoek eragindako kutsaduraren sortzaile nagusiak errektuntza-prozesuak dira.
- 75d) a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

**76 METAL ASTUNEK ERAGITEN DUTEN ATMOSFERAREN KUTSADURA DELA-ETA:**

- 76a) EAEko hiriburuetan dauden hiri-sentsore guztietan "on line" kontrolatzen ari dira metal astunak, eta egunero ematen zaie horren berri herritarrei.
- 76b) Merkurioari dagokionez soilik ezarri da jasan daitekeen gehienezko kopurua.
- 76c) Berunerako muga-balioak 1073/2002 Errege Dekretuak ezartzen ditu.
- 76d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**77 SO<sub>2</sub>RI DAGOKIONEZ, HURRENGOETATIK ZEIN DA ZUZENA ?**

- 77a) Ez du nabarmentzeko moduko arrisku-talderik, osasunean dituen eraginei dagokienez.
- 77b) Giza organismoan duen akzio-bidea partikulenarekin lotuta egon ohi da.
- 77c) Ez da ezarri osasuna babesteko ordu-atalaserik.
- 77d) Disolbagarritasun txikia duenez, apenas absorbitu gabe arnasten eta botatzen da.

**78 AIREA KUTSATZEN DUTEN PARTIKULARREN ERAGINPEAN JARTZEA...**

- 78a) Arnasketako gaixotasun-tasa handitzearekin lotu izan da.
- 78b) Heriotza-tasa handitzearekin lotu izan da, baina ez, berriz, arnasketako kontuengatik gaixotze-tasa handitzearekin.
- 78c) Ez da heriotza-tasa handitzearekin lotu, ezta gaixotasun-tasa handitzearekin ere.
- 78d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

**79 257/2004 DEKRETUAREN BIDEZ EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ENPRESA ETA ZERBITZU BIOZIDEN ERREGISTRO OFIZIALA SORTU ZEN. HAREN ARABERA, ZEIN DIRA BERTAN INSKRIBATU BEHARRA EZ DUTENAK?**

- 79a) Desinfektatzeko eta intsektuak eta arratoiak hiltzeko enpresak.
- 79b) *Legionellaren* aurkako produktu kimikoak biltzen edo fabrikatzen dituzten enpresak.
- 79c) Landare-osasunerako produktuak merkaturatzen dituzten nekazaritza-kooperatibak.
- 79d) Desinfektatzeko eta intsektuak eta arratoiak hiltzeko tratamenduak profesionalki erabiltzeko produktu kimikoak saltzen dituzten enpresak.

**80 BIOZIDAK ERREGISTRATZEKO, BAIMENTZEKO ETA MERKATURATZEKO EBALUAZIO-PROZESUA ARAUTZEN DU 1054/2002 ERREGE-DEKRETUAK. HURRENGO PRODUKTUETATIK, ZEIN DAGO HAREN APLIKAZIO-EREMUTIK KANPO?**

- 80a) Edateko ura desinfektatzeko produktuak.
- 80b) Ontziratutako produktuatarako kontserbagarriak.
- 80c) Landareen osasunerako produktuak.
- 80d) Algen kontrako produktuak.

**81 DESINFEKTATZEKO PRODUKTUEI DAGOKIENEZ...**

- 81a) Derrigorrezkoa da Osasun eta Kontsumo Ministerioaren Bioziden Erregistro Ofizialean inskribatzea.
- 81b) 1054/2002 Errege Dekretuaren aplikazio-eremutik kanpo daude. Haren bidez, biozidak erregistratzeko, baimentzeko eta merkaturatzeko ebaluazio-prozesua arautzen da-eta.
- 81c) Ez da beharrezkoa trebakuntza espezifiko bat jasotzea, hirugarrenei eman beharreko tratamenduetan aplikatzeko, produktu kaltegarri edo toxikoak direnean izan ezik.
- 81d) a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

**82 SUBSTANTZIA ETA PRESTAKIN KIMIKOAK ERREGISTRATZE, EBALUATZE, BAIMENTZE ETA MUGATZEARI BURUZKO 1907/2006 ERREGELAMENDUARI (EE) DAGOKIONEZ, AIPATU ZEIN EZ DA ZUZENA:**

- 82a) Giza osasuna eta ingurumena maila handi batean babestea bermatzen saiatzen da.
- 82b) Substantziei eta prestakin kimikoei aplikatzen zaie, zenbait salbuespenekin.
- 82c) Zuhurtasun-printzipioan oinarritzen da. Fabrikatzaileei, inportatzaileei eta erabiltzaileei dagokie bermatzea giza osasunean edo ingurumenean kaltetzen ez duten substantziak baino ez dituztela fabrikatzen, merkaturatzen edo erabiltzen.
- 82d) Substantzia erradioaktiboei eta hondakin kimikoei ere aplikatzen zaie.

**83 HURRENGOETATIK ZEIN EZ DA ERABILTZEN HAURRAK JOLASTEKO EREMUETAN DAUDEN KUTSATZAILEEN ERAGINPEAN JARTZE-MAILA KALKULATZEKO?**

- 83a) Lurra ahoratzea.
- 83b) Partikulak inhalatzea.
- 83c) Begetalak jatea.
- 83d) Azaleko kontaktua.

**84 LUR KUTSATUEI DAGOKIENEZ, VIE-B ERREFERENTZIA-MAILAK...**

- 84a) Arrisku-onargarritasunaren gutxieneko muga ezartzen du.
- 84b) Arrisku-onargarritasunaren gehieneko muga ezartzen du.
- 84c) Azaltzen du zer substantzia-kontzentrazioetatik gora dagoen lurra hondatuta eta baliteke kutsatuta egotea.
- 84d) Azaltzen du zer substantzia-kontzentrazioetatik gora lurra kutsatutzat jo daitekeen arrisku-azterketa egin beharrik gabe.

**85 EUSKO JAURLARITZAKO LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILAK GIDA BAT DAUKA PROPOSATURIK, LURZORU KUTSATUETAN ZER EGIN JAKITEKO. BADA, GIDA HORRETAN, LEKU HAUETAKO ZEINETARAKO DAUDE PROPOSATURIK EBA-B BALORE ZORROTZENAK, OSASUNA ZAINZEARREN?**

- 85a) Industriadako/Merkataritzaerako.
- 85b) Bizilekuetarako.
- 85c) Umeen jolaslekuetarako.
- 85d) Parke publikoetarako.

**86 ZER DA LEGINELOSIA?**

- 86a) Gaixotasun birikoa da. Pertsonen artean ez da kutsagarria, eta ur-aerosol kutsatuak arnastuz harrapatzen dugu.
- 86b) Bakterio-gaixotasun bat da, eta, batez ere, ur kutsatua edateagatik harrapatzen dugu.
- 86c) Gaixotasun bat da, baina ez da zertan derrigor deklaratu behar. Hala ere, gertatzen diren kasu guztiak zorrotz-zorrotz kontrolatzen dira.
- 86d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

**87 LEGINELOSIARI AURREA HARTZEKO ETA KONTROLATZEKO GARBITASUN- ETA OSASUN-IRIZPIDEAK UZTAILAREN 4KO 865/2003 ERREGE DEKRETUAN DAUDE ZEHAZTURIK. AUKERA HAUETAKO BAT EZ DAGO DEKRETU HORREN APLIKAZIO-EREMUAN. ZEIN DA?**

- 87a) Leku publikoetako iturri apaingarriak.
- 87b) Hozketa-dorreak.
- 87c) Polikiroldegietako eta antzeko instalazioetako ur hotzeko zirkuituak.
- 87d) Etxebizitzetako ur beroko zirkuituak.

**88 LEGIONELOSIARI AURREA HARTZEKO ETA KONTROLATZEKO GARBITASUN- ETA OSASUN-IRIZPIDEAK UZTAILAREN 4KO 865/2003 ERREGE DEKRETUAN DAUDE ZEHAZTURIK. DEKRETU HORREN PEAN DAUDEN INSTALAZIOAK DIRELA-ETA, AUKERA HAUETAKO ZEIN DA ZUZENA?**

- 88a) Instalazio horien autokontrola Osasunekoek egingo dute.
- 88b) Titularren ardura izango da instalazio horiek behar bezala funtzionatzea, eta, hartara, osasun publikorako arriskugarriak ez izatea.
- 88c) Halako instalazioak mantentzeko kontratatzen diren enpresek, hilean behin gutxienez, shock-tratamenduak egin behar dituzte.
- 88d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.



**89 202/2004 DEKRETUA, EAE-KO HILOTZEN SANITATE-ALDERDIEI BURUZKO ERREGELAMENDUA ONARTZEN DUENA. DEKRETU HORRETAN JARTZEN DUENEZ:**

- 89a) Heriotza eragin dien arrazoiak osasun-arriskurik baldin badakar ehorzketako langileentzat edo herritarrentzat orokorrean, pertsona-gorpuak hilerri baimendunetan ehortzi beharko dira, herri-administrazioak jarritako arauen eta irizpideen arabera.
- 89b) Substantzia, isotopo edo produktu erradioaktiboz kutsatuta baldin badaude, edo kutsadura erradiaktiboa dela-eta osasun-arriskurik baldin badakarte, pertsona-gorpuak behar bezala baimendutako instalazioetan erraustu beharko dira.
- 89c) Instalazio baimenduetan edozein gorpu ehortzi edo erraustu daiteke, edozein, senitartekoek hala nahi badute.
- 89d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

**90 202/2004 DEKRETUA, EAE-KO HILOTZEN SANITATE-ALDERDIEI BURUZKO ERREGELAMENDUA ONARTZEN DUENA. DEKRETU HORRETAN JARTZEN DUENEZ:**

- 90a) Orokorrean, ehortzi zutenetik 2 urte igaro baino lehenago, ezingo da gorpurik lurpetik atera.
- 90b) II. taldeko gorpuek lekualdaketetarako hilkutxa berezia behar dute.
- 90c) Gorpuak estatu batetik bestera eramateko, hilkutxa berezia beharko da; baina autonomia-erkidego batetik bestera eramateko, ez.
- 90d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**91 INDUSTRIA-JARDUERA BATERAKO BAIMENA EMATEKO PROZESUAN, TRAMITAZIO HAUETAKO BATEAN EZ DU OSASUN SAILAK PARTE HARTZEN. ZEIN DA?**

- 91a) Udal-jardueretarako lizentzia emateko tramitazioan.
- 91b) Hondakin-ekoizleen erregistroan izena emateko.
- 91c) Gero bere instalazioetan erabiltzeko baldin badu, putzu batetik ura hartzeko baimena..
- 91d) Instalazioak hozteko dorreak erregistratzea.

**92 TELEFONO MUGIKORREKO OINARRI-ESTAZIOEK SORTZEN DITUZTEN EREMU ELEKTROMAGNETIKOEN ERAGINPEAN DAUDENEN OSASUNA BABESTEKO ARAUAK. ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?**

- 92a) Ez dago aplikazioko araudirik. Europar Batasuneko Osasun Ministroen Kontseiluko 1999ko uztailaren 12ko gomendioak dakartzan irizpideak besterik ez daukagu.
- 92b) 1066/2001 Errege Dekretua da aplikatu beharrekoa. Dekretu horren bidez onartu zen erregelamendu batean datoz jasota jabari publiko erradioelektrikoa babesteko baldintzak, emisio erradioelektrikoetarako murriztapenak eta emisio erradioelektrikoetatik babesteko neurriak.
- 92c) 35/2008 Errege Dekretua aplikatu behar da. Dekretu horren bidez aldatu zen instalazio nuklearrei eta erradioaktiboetarako buruzko erregelamendua.
- 92d) 2006/25/EE Direktiba aplikatu behar da. Erradiazio optiko artifizialeetatik sortutako arriskuei buruzkoa da.

- 93 EUSKADIKO BABES ZIBILEKO LURRALDE PLANEAN AURREIKUSTEN DIREN TALDEEN ARTEAN, LAGUNTZA TEKNIKOKO TALDEA ERE AIPATZEN DA. ONDORENGO EGINKIZUNETAKO ZEIN DIRA TALDE HORRI DAGOZKIONAK?**
- 93a) Istripuaren ondorioak eta arriskuaren sorburuak kontrolatu, gutxitu edo neutralizatzea.  
93b) Neurri zuzentzaile eta konpontze-neurriei buruz aholku ematea, hain zuzen ere arriskuei aurre hartzeko, horiek eragiten dituzten arrazoiak kontrolatzeko, edo ondorioak txikiagoak izatea lortu eta kaltetutako oinarrizko zerbitzuak berriz martxan jartzeko.  
93c) Herritarren segurtasuna bermatzea.  
93d) Operazioei laguntzea eta isolatuta geratu diren pertsonen kasu egitea, dauden transmisio-sistemak osatuz, unitate mugikorrek edo beste batzuk erabilita.
- 94 EUSKADIKO BABES ZIBILEKO LURRALDE PLANEAN AURREIKUSTEN DIREN TALDEEN ARTEAN, ZEINETAN HARTZEN DU PARTE OSASUN SAILAK?**
- 94a) Osasun-taldean eta esku hartzeko taldean.  
94b) Osasun-taldean eta segurtasun-taldean.  
94c) Osasun-taldean eta logistika-taldean.  
94d) Osasun-taldean eta laguntza teknikoko taldean.
- 95 JARDUERA SAILKATUETARAKO LIZENTZIAK EMATEARI DAGOKIONEZ (LEHENGO JARDUERA GOGAIKARRI, OSASUNGAITZ, KALTEGARRI ETA ARRISKUTSUAK)**
- 95a) Jarduera lizentzia Ingurumen Sailak ematen du eta ondoren osasun-txostena eman behar da.  
95b) Udalak jarduera sailkatuak ingurumenean inpaktu bortitza izango duela aurreikusten duenean soil-soilik eskatuko dizkie txostenak ingurumen eta osasun sailei.  
95c) Udalak, jarduera lizentzia eman baino lehen, ingurumen-txostena eta osasun txostenak behar ditu. Biak dira aginduzkoak eta bete beharrekoak.  
95d) Aurreko erantzun guztiak dira okerrekoak.
- 96 ONDOKO ERAKUNDEEN ARTEAN, ZEINEK JAKINARAZI BEHAR DIZKIO DATU PERTSONALEN FITXATEGIAK DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOARI?**
- 96a) Euskal Autonomia Erkidego barruko toki-administrazioek  
96b) Eusko Legebiltzarrak  
96c) Lan Harremanen Kontseiluak  
96d) Aurreko erantzun guztiak dira zuzenak.
- 97 ONDOKOEN ARTEAN, ZEIN EZ DA DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAREN EGINKIZUNA?**
- 97a) Lege hau garatzeko xedapen orokorretako egitasmoen buruzko txostenak egitea, derrigor.  
97b) Lege eta erregelamenduetan zehazturik dauden baimenak ematea.  
97c) Helbidea Euskadiko Autonomia Erkidegoan duen edozein pertsona fisikok zein juridikok jakinarazitako datu pertsonalen fitxategien erregistroa edukitzea.  
97d) Datu pertsonalak tratatzea dela-eta dituzten eskubideei buruzko informazioa ematea pertsonen.

- 98 ONDOKOEN ARTEAN, ZEIN EZ DA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN ARLOAN EUSKAL HERRI-AGINTEEN JARDUKETA GIDATU ETA BIDERATUKO DUTEN PRINTZIPIO OROKORRETAKO BAT?**
- 98a) Tratu berdina.
  - 98b) Aukera-berdintasuna.
  - 98c) Ekintza positiboa.
  - 98d) Emakumearen aldeko bereizkeria.
- 99 ZEIN PRINTZIPIORI DAGOKIO ONDOKO DEFINIZIOA?: EMAKUMEEN ETA GIZONEN EGOERA, BALDINTZA, JOMUGA ETA BEHARRIZAN EZBERDINAK MODU SISTEMATIKOAN KONTSIDERATZEA, ETA, HORRETARAKO, POLITIKA ETA EKINTZA GUZTIETAN, MAILA GUZTIETAN ETA HORIEN PLANGINTZA-, EGIKARITZE- ETA EBALUAZIO-FASE GUZTIETAN, EZBERDINTASUNAK EZABATZEKO ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO XEDEA DUTEN HELBURU ETA JARDUKETA ZEHATZAK TXERTATZEA.**
- 99a) Aukera-berdintasuna.
  - 99b) Genero-ikuspegiaren integrazioa.
  - 99c) Tratu berdina.
  - 99d) Definizioa ez dagokio aurreko printzipio bati ere.
- 100 ZEIN PRINTZIPIORI DAGOKIO ONDOKO DEFINIZIOA?: EMAKUMEEN ETA GIZONEN EGOERA, BALDINTZA, JOMUGA ETA BEHARRIZAN EZBERDINAK MODU SISTEMATIKOAN KONTSIDERATZEA, ETA, HORRETARAKO, POLITIKA ETA EKINTZA GUZTIETAN, MAILA GUZTIETAN ETA HORIEN PLANGINTZA-, EGIKARITZE- ETA EBALUAZIO-FASE GUZTIETAN, EZBERDINTASUNAK EZABATZEKO ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO XEDEA DUTEN HELBURU ETA JARDUKETA ZEHATZAK TXERTATZEA.**
- 100a) Aukera-berdintasuna.
  - 100b) Genero-ikuspegiaren integrazioa.
  - 100c) Tratu berdina.
  - 100d) Definizioa ez dagokio aurreko printzipio bati ere.

## ORDEZKO GALDERAK

- 101 URA KLOROAREKIN DESINFEKTATZEKO ORDUAN, DENA DELAKO DESINFEKZIO MAILA LORTZEKO BEHAR DEN DENBORA-TARTEA, GAINONTZEKO BALDINTZAK ALDATU GABE, MURRIZTU EGINGO DA:**
- 101a) Kloro-kontzentrazioa handitu eta pHa murrizten den heinean.
  - 101b) Kloro-kontzentrazioa handitu eta pHa ere handitzen den heinean.
  - 101c) Kloro-kontzentrazioa murriztu eta pHa ere murrizten den heinean.
  - 101d) Kloro-kontzentrazioa murriztu eta pHa handitzen den heinean.
- 102 IGERILEKUKO URA IRAGAZTEA ETA DESINFEKTATZEA**
- 102a) Ez da nahitaezkoa, igerilekurako ura uhertasun handikoa ez bada behintzat.
  - 102b) Ahal dela, iragazki leunekin egingo da.
  - 102c) Etengabe egin beharko litzateke; bai, behintzat, jendearentzat zabalik dagoen artean.
  - 102d) Ez dago egin beharrik, hondar-kloro librea 1,2 mg/l baino handiagoa baldin bada.

**103 SPA DEITURIKOEI BURUZ, BAI EZTAPEN HAUETAKO ZEIN DA GEZURRA?**

- 103a) Jolaserako, terapiarako eta lasaitzeko dira.
- 103b) Presiozko ur-zurrustak, aire eta urezko zurrusta-gailuak edo antzekoak izaten dituzte.
- 103c) Bainurako uraren tenperatura jolaserako eta igeriketarako igerilekuetakoa baino handiagoa izaten da.
- 103d) Legionelosisia prebenitzeko eta kontrolatzeko 865/2003 Errege Dekretuaren aplikazio-eremutik kanpo daude.

**104 HONDAKINEZ ARI GARELA, ZER DA BIRZIKLATZEA? :**

- 104a) Hondakinak ingurumenari kalterik egin gabe suntsitzeko –gutziz edo hein batean suntsitzeko-prozedura oro.
- 104b) Hondakinak garraiatzeko bildu, sailkatu, multzokatu edo prestatzeko prozedura.
- 104c) Produktu bat, berarentzat hasieran pentsatutako helburu hartarakoxe erabiltzea.
- 104d) Hondakinak produkzio-prozesu baten barruan eraldatzea, hasieran eman zitzaion helbururako edo beste baterako, are konposta egiteko eta biometanizaziorako ere, baina ez ordea energia berreskuratzen duen errausketarako.

**105 BOTIKA ZITOTOXIKOEN EDO ZITOSTATIKOEN HONDAKINAK**

- 105a) Botatako gainerako botikekin batera kudeatzen dira.
- 105b) Hondakin erradiaktiboen moduan kudeatzen dira.
- 105c) III. taldeko hondakin gisa autoklabean tratatu beharko dira.
- 105d) Behin erabiltzeko ontzi zurrunetan jasoko dira, eta "zitotoxikoa" dioen anagrama eramango dute errotulaturata.

**106 HACCP / APPCC SISTEMA BATEAN, BALIDAZIOA ETA EGIATZAPENA**

- 106a) Muga kritikoak gainditzen direla detektatzeko sistema dira.
- 106b) PCC-ak zehazteko metodoak dira.
- 106c) Fluxu-diagrama egiteko tresna dira.
- 106d) Autokontrolako sistemak behar bezala funtzionatzen duela ziurtatzeko dira.

**107 ZER DA BADA EZPADA (KAUTELA) EDO ZUHURTZIA PRINTZIOA?**

- 107a) Arriskua kudeatzeko behin-behineko neurriak hartzea, ikusiz gero produkturen bat osasunerako kaltegarri izan daitekeela.
- 107b) Xedatzea ezin dela inongo jakirik merkatuan zabaldu, aurretik arriskuen analisia egin gabe.
- 107c) Kontsumitzaileak arreata jartzea elikagaiak eskuratu eta manipulatzean, bera ere elikadura-kateko begi bat baita.
- 107d) Elikagai guzti-guztiek etiketa eraman beharra, adierazteko zein ondorio txar eragin ditzakeen, direla alergia, intolerantziak eta abar.

**108      CAMPYLOBACTER JEJUNI DELAKOAK ERAGINDAKO INTOXIKAZIOA DELA ETA, ESALDI HAUETATIK ZEIN DA ZUZENA?**

- 108a) Arrautzak eta deribatuak janda transmititzen da nagusiki.
- 108b) Proporzioan, eragin handiagoa dauka 4 urte bitarteko umeengan, eta oilaskoak eragiten du nagusiki.
- 108c) Izozteko tenperaturetan ere aurrera egiten du, hortaz, gerta liteke jaki izoztuak ere kutsatuta egotea.
- 108d) Aurreko hiru erantzunetako bat ere ez da zuzena.

**109      2/2004 LEGEA, OTSAILAREN 25EKOA, DATU PERTSONALETARAKO JABETZA PUBLIKOKO FITXATEGIEI ETA DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOA SORTZEARI BURUZKOA. LEGE HONEN ARABERA, DATUAK BABESTEKO ERREGISTROAN HONAKO GAUZA HAUEK INSKRIBATU BEHARKO DIRA, BESTEAK BESTE:**

- 109a) Zuzenbide publikoko ahalak gauzatzeko Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak sortu edo kudeatutako fitxategiak.
- 109b) Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak sortu edo kudeatutako fitxategiak, edozein xede dutela ere.
- 109c) Zuzenbide pribatuko pertsona juridikoek sortu edo kudeatutako fitxategiak, pertsona horiek helbidea Euskadiko Autonomia Erkidegoan dutenean.
- 109d) b) eta c) erantzunak dira zuzenak.

**110      HERRI-ADMINISTRAZIOEK, DATU PERTSONALAK BILTZEKO**

- 110a) Oro har, datu horiei buruzko legeriak agindutakoaren arabera informazioa eman beharko diete interesdunei aldez aurretik.
- 110b) Oro har ez diete interesdunei, aldez aurretik, informazioa eskeini beharrik.
- 110c) Beti eman behar diete aldez aurretik interesdunei datu horiei buruzko legeriak agindutakoaren arabera informazioa
- 110d) Ez diete inoiz informaziorik eman behar aldez aurretik interesdunei.

## **BOLSAS DE TRABAJO 2009**

# **TÉCNICOS/AS DE SALUD PÚBLICA**

## **MODELO A**

**16/06/2009**

**1 LAS DIOXINAS SON**

- 1a) Toxinas producidas por protozoos
- 1b) Sustancias originadas por microorganismos esporulados
- 1c) Compuestos persistentes originados principalmente por procesos térmicos
- 1d) Sustancias que se añaden a los alimentos como marcadores

**2 EL BENZO (A) PIRENO ES**

- 2a) Una dioxina
- 2b) Un hidrocarburo aromático policíclico
- 2c) Un coccidiostático empleado en avicultura
- 2d) Un tóxico natural

**3 LAS DIOXINAS Y PCBS SE MIDEN EN LOS ALIMENTOS**

- 3a) Mediante equivalentes tóxicos (EQT)
- 3b) Sólo se miden las dioxinas porque los PCBs no son tóxicos por ingestión
- 3c) Sólo se miden las PCBs en alimentos
- 3d) Por el halo de inhibición en placa

**4 LOS PLAGUICIDAS MÁS TÓXICOS EN ALIMENTOS SON LOS**

- 4a) Organoclorados
- 4b) Organofosforados
- 4c) Carbamatos
- 4d) Ditiocarbamatos

**5 EN LA MAYOR PARTE DE LOS ALIMENTOS SE DETECTAN PEQUEÑAS CANTIDADES DE**

- 5a) Mercurio
- 5b) Arsénico inorgánico
- 5c) Plomo
- 5d) Nitratos y nitritos

**6 EL CADMIO**

- 6a) Se encuentra en niveles muy altos en algunos alimentos
- 6b) Se genera a partir de ciertos tratamientos de los alimentos
- 6c) Se ingiere fundamentalmente a través del agua
- 6d) Es carcinogénico para el hombre

**7 ¿CUÁL DE ESTOS ALIMENTOS TIENE MÁS POSIBILIDADES DE ESTAR CONTAMINADO POR MERCURIO?**

- 7a) Merluza
- 7b) Atún
- 7c) Carne de vacuno mayor
- 7d) Verduras

**8 LOS PLAGUICIDAS ORGANOFOSFORADOS**

- 8a) Se metabolizan rápidamente
- 8b) Tienen escasa persistencia en el medio ambiente
- 8c) Son los plaguicidas más utilizados
- 8d) Las tres respuestas son correctas

**9 EN RELACIÓN A LOS TÓXICOS NATURALES EN LOS ALIMENTOS, ¿CUAL DE ESTAS AFIRMACIONES ES CIERTA?**

- 9a) Tienen más repercusión sanitaria que la contaminación microbiológica de los alimentos
- 9b) Al ser naturales, no tienen incidencia en la salud de las personas
- 9c) Después de los microbiológicos, son la principal causa de enfermedad por alimentos
- 9d) Producen más problemas de salud los aditivos alimentarios

**10 EL HEXESTROL ES**

- 10a) Un estilbena
- 10b) Un tireostático
- 10c) Un  $\beta$ -agonista
- 10d) Un antimicrobiano

**11 EL LIMITE MAXIMO PERMITIDO DE CLENBUTEROL EN HIGADO DE VACUNO ES**

- 11a) 10  $\mu\text{g/g}$
- 11b) 10  $\text{mg/g}$
- 11c) 100  $\mu\text{g/g}$
- 11d) El clenbuterol está prohibido y por tanto no puede detectarse ningún nivel

**12 ¿CUAL DE ESTAS SUSTANCIAS ESTÁN PROHIBIDAS EN ANIMALES DESTINADOS A CONSUMO HUMANO?**

- 12a) Coccidiostatos
- 12b) Sulfamidas
- 12c) Cloranfenicol
- 12d) Ninguna de estas tres sustancias está prohibida, aunque existe un límite máximo

